

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Irailaren 6ko 231/2019 Foru Agindua, zeinak hasierako onespena ematen baitio interes publikoa adierazteko espendiente bati; hain zuzen ere, Sobron herriko 1 poligonoko 938 lurzatian, Lantarongo udalerriko lurzoru ez urbanizagarrian, Itelazpiren telekomunikazio dorrea ordezkatzeko proiektuarenari

Itelazpi SAK hirigintza baimena eskatu dio Lantarongo Udalari, Sobron herriko 1 poligonoko 938 lurzatian dagoen telekomunikazio dorrea ordezkatzeko, eta horrela, inguru horretako herriarrei LTD zerbitzua emateko eta 112 larrialdi zerbitzuarekin eta telefonia mugikorreko beste operadore batzuen bitartez komunikatu ahal izateko (3G, 4G y 5G). Eskatzaileak adierazi du egungo hormigoizko zutoinak 14 metroko garaiera duela eta ahalegin kargen mugaren gainetik dagoela, eta obra baimena eskatu du 25 metroko dorre batez ordezkatzeko, eta horregatik, atxikitzen ditu Industri Ingeniaren Elkargo Ofizialaren proiektu ikus-onetsia eta obraren gauzatze memoria, planoak eta aurrekontuak.

Udalak espediente bidali du (Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean 2019ko uztailaren 4an jaso) eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5. a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen zati da udal arkitektoak eginiko txostena, non jasotzen baita 35-1-938 kastro erreferentzia duen lurzattia kokatuta dagoela lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako eta Balio Zientifiko Bereziko Babes Eremu gisa (1 eremua) kalifikatutako lursailean, halaxe jasotzen baitute udalerriko indarreko arau subsidiarioek, eta horietan ez da jasotzen baimenduta dagoenik onura publikoko eta gizarte intereseko instalazioak ezartzea. Hala eta guztiz ere, eskaera onestea egokitzat jotzen da; izan ere, azpiegitura leku horretan dago jada eta beharrezkoa da bertan izatea, haren ezaugarri bereziak eta instalazioaren xedeak direla eta.

Horrez gain, txosten horretan jasotzen da Araba Erdialdeko LPParen antolamendu arauen arabera ez dagoela eragozpenik proiektuan jasoriko instalazioa erreferentziako lurzatian jartzeko, ordezkatu nahi den dorrea ez baita jarriko herrigunean, ezpada A-4 lurralde zatian, lurralde babeserako prozesuen eremuan. Txostenean adierazten da, gainera, Araba Erdialdeko LPParen zehaztapenen arabera Lantarongo udalerririk bi eragiketa estrategiko jasotzen dituela, hau da, OE-5 eta OE-9, eta bietako batek ere ez diola eragingo ordezkatu nahi den komunikazio dorreari. Hortaz, egiaztatutzat jotzen da eskatu den lizentzia bat datorrela lurralde planeamenduarekin.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espediente ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezartzen duen araubideari jarraituz, lurzoru urbanizaezinean "ezin da beste jardunik gauzatu aplikatzekoa den legedia sektorialak edo lurralde planeamenduak interes publikokotzat jotako zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak baizik, baldin eta, gainera, dagokion foru diputatuaren ebazpenaren bidez, interes publikokotzat jotzen badira, aldeztatik hogei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea beteta".

Bigarrena. 2019ko uztailaren 29an, zerbitzu honek txostena eman zuen eta adierazi zuen Lantarongo udalerriko indarreko arau subsidiarioen arabera telekomunikazio dorre berria jarri nahi den lurzattia Sobron-Arzena Mendilerroko Natura Intereseko Gunean dagoela eta Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 15eko 47/2016 Dekretuak Valderejo-Sobron-Arzeda Mendilerroa (ES2110024) Kontserbazio Bereziko Eremu eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu izendatu zuela eta hura kontserbatzeko neurriak ezarri zituela. Dekretu horren sarreran jasotzen denaren arabera, natura ondarearen, biodibertsitatearen eta Batasuneko garrantziko lekuen alor honetan, Eusko Jaurlaritzak eta foru organoek eskumen konkurrenteak dituzte. Martxoaren 15eko 47/2016 Dekretuaren II. eranskinak (Valderejo-Sobron-Arzena Mendilerroa (ES2110024) KBE/HBBEa kontserbatzeko informazio ekologikoa, helburuak eta arauak zein jarraipen programa jasotzeko dokumentua) honako hau jasotzen du 6. puntuan (Kontserbatzeko xedeak eta arauak): "Erabilera bateragarriak. Erabilera bateragarritzat jotzen dira behar bezala eginik KBE/HBBEaren kontserbazio helburuetan eragin neutroa edo positiboa dutenak. Dokumentu honen ondorioetarako, erregulaziotzat hartzen da kontserbazio xedeak lortzeko beharrezkoa den betebeharrak, debeku, baldintzatzaile eta irizpide multzoa. Erregulazio orokorrak (...)

E.3. Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 45. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, izan banaka izan beste plan edo proiektu batzuekin batera, nahiz eta Valderejo-Sobron-Arzena Mendilerroa KBE-HBBEaren kudeaketarekin harremanik ez izan edo horretarako beharrezkoa ez izan, behar bezala ebaluatuko dira modu aipagarrian eragin diezaiokkeen edozein plan, programa edo proiektuak bertan izan ditzakeen ondorioak, bertako kontserbazio xedeak aintzat hartuta.

Ebaluazio horren ondorioak ikusita eta aipatu 45. artikuluko 5. atalean xedatutakoaren mende egonda, planak, programak edo proiektuak onetsi edo baimentzeko organo eskudunek horiekin bat datozela adierazi ahal izango dute kasuan kasuko tokiaren osotasunari kalte egingo ez diola ziurtatu ondoren soilik, eta hala badagokio, jendaurrean ikusgai jarri ostean."

Lantarongo Udalak bidalitako agirien artean ez dago bat ere 35-1-938 lurzattia Valderejo-Sobron-Arzena Mendilerroa (ES2110024) KBE/HBBEa Natura 2000 Sarearen barruan dagoela dioenik, eta ez dago inon jasota zerbitzu eskudunak, esparru horren organo kudeatzaile gisa, ebaluazio txostenik egin duenik. Horregatik, 2019ko abuztuaren 1ean, Natura Ondarearen Zerbitzuari eskatu zitzaion proiektuak izan ditzakeen kalteak ebaluatzeko txostena emateko, proiektua baimendu aurretik; Lantarongo Udalarik jakinarazi zitzaion hori, eta ebazpena emateko epea eten zen, Administrazio Prozedura Erkdiearen 39/2015 Legearen 22.1. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

2019ko irailaren 2an, Natura Ondarearen Zerbitzuak egindako txostena igorri zen. Txosten horretan, aurrekariak eta beharrezko oharra azaldu eta gero, honako hau ondorioztatzen da:

"1. Egin nahi diren esku hartzeak eragina izango dute Valderejo-Sobron-Arzena Mendilerroa (ES2110024) KBE/HBBEan, zeinak berariazko gidalerroak eta kontserbazio neurriak baititu.

2. KBEan egin nahi diren obrek zein eragin izango duten aztertu eta ebaluatu ostean, uste da ez dituztela habitatak eta espezieak nabarmen kaltetuko, baldin eta aurreko atalean jasotako prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak aplikatzen badira, eta, beraz bateragarriak dira eremua kontserbatzeko helburuekin.

3. Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak drrigorrean eman beharreko baimenari dagokionez, **BALDINTZAPEKO ALDEKO TXOSTENA** ematen da, ezarritako babes neurri eta neurri zuzentzaileei dagokienez. Dena dela, horrek ez du sustatzailea salbuesten egin nahi dituen esku hartzeak gauzatzeko beharrezkoak izan daitezkeen beste baimen batzuk eskuratzetik."

Hirugarrena. Aztertutako kasuan, hasierako onespina izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, dagozkitan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onspena ematea interes publikoa adierazteko espediente bati; hain zuzen ere, Sobron herriko 1 poligonoko 938 lurzatian, Lantarongo udalerriko lurzoru ez urbanizagarrian, Itelazpiren telekomunikazio dorrea ordezkatzeko proiektuarenari.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea hogei egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Aldi horretan nahi duen orok nahi dituen alegazio guztiak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Gasteiz, 2019ko irailaren 6a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO